

AURKEZPENA

M&MIC (Mierd Machine International Corporation)

Azkeneko urteetan energia berriztagarrien mugimenduak aurrera egin du. Ozono-geruzaren berotzeak eta berotegi-efektuaren lehenengo eragina ikusi dira lur planetan. Petrolioaren, gasaren eta beste energia berriztaezinen denbora bukatzeko arriskuan dago, gizakiaren gehiegikeriarengatik. Horren ondorioz beharrezkoak dira energia lortzeko metodo berriztatzaileak.

Horregatik gure proiektuaren helburuetako bat ingurumenari laguntzea da; prozesu honen bitartez etekinak lortzen ditugun bitartean.

Gure proiektuaren prozesuan hiru fase nagusi burutuko ditugu. Horretarako gorotzak erabiliko ditugu lehengai bezala: aurretik gutxitan erabili den lehengai izan da eta honen inguruko ezagutza txikia da. Prozesuan, gorotzak jasoko ditugu ondoren lehengai horren bitartez energia sortuko dugu, prozesuaren ondoren sortutako energia banatzeko.

Energiaren sorrera prozesu hau burutzeko M&MIC (Mierd Machine International Corporation), hondakin organikoetatik (Animalien gorotziak) energia lortzen duen enpresa. Lehengai bertakoa izango da eta bertako nekazariekin aliantzak egingo ditugu horretarako. Beste enpresetatik bereiz gaitezen hainbat urrats emango ditugu energia berriztagarrien mundu bereizgarri eta ezezagunean. Horretarako garraio kostuak eta kutsamena saihesten saiatuko gara; aurretik aipatutako ingurumenaren onerako. Gainera, animalien eskubideen alde borrokatu genuke; lortzen dugun produktua presio gabe eta prozesua azeleratzen duten gehigarririk gabe.

Energia egunero sortzeaz gainera, ongarri likidoa lortuko genuke. Bigarren mailako produktua gehigarri bezala saldu genezake eta honek ere etekinak emango lizkiguke.

M&M IC

